



# ALKARREGAZ BIDE EGIN ALKAR ZAINDUZ

## GARIZUMA-PAZKO ALDIKO PASTORAL IDAZKIA 2022

### Sarrera

Garizuma-aldiaren hasieran, Bizkaiko alkarteari hitz batzuk esan gura deusdaz nire lehenengo pastoral idazki honetan. Eskuragarri eta ulergarri izango ahal da. Orain dala urte bi hasita, guztiz hedatuta dan pandemiaren esperientzia bizi izan dogu eta orain be gure ohitura, jokaera eta aukerak baldintzatu egiten ditu. Eta, jakina, eragin sakona izan dau Eleizaren bizitzan be. Bere eretxia agertu dauan askok, eta ez gitxik hasarre gainera, egoera barri honek gure askatasunari ezartzen deusazan mugak nabarmentzen ditu. Halanda be, bizitzaren kristau ikuspuntuak osasun publikoa lehenesten dau, besteen gainetik dagoan ondasun lez, biziak salbatzeko eta estresa, batez be "zaintzari" estu lotutako lanbide hareetan jasandakoa, arintzeko lagungarri izan daitekezan murrizketak onartuz. Esperientzia berbera bizi izate hau "garaien zantzua" be bada eta banaka eta alkarlean hazteko aukera. Pandemia honek, ezagutza zientifikoaren eta garapen teknologikoren aurrerapena egundokoa bada be, oraindik ahulak garala hobeto ulertzen lagundu deusku, batez be; gure mundu globalean, alkarren mendekotasuna handia dan munduan, inongo talde pribilegiatuk ez dauala bakarrik salbatzeko aukerarik izango onartzeko baliagarri izan da eta, alkar zaintzea eta eginkizun horretan diharduen pertsonen ahalegina, gizartearen eraikuntzan funtsezko ondasun lez gero eta gehiago baloratzeko.

Gure Eleizaren bizitzari dagokionez, joan dan urtearen amaieran zein barriaren hasieran, Frantzisko aita santuak deitutako Sinodo-prozesuan izan dogun partaidetza nabarmendu da. Pastoral idazki honek sinodo-senaren esanahian sakondu gura dau, pandemiak itzi deuskun azken ikasbidea aintzat hartuta: alkar zaintzearen garrantzia giza esperientzian eta gure alkarlean izatean. Bizkaiko Eleizan garaien zantzua irakurten ikasi gura dogu, alkar zainduz eta gizalegezko gizartearen sorburu eta Jesusen alkarlean bereizgarri diran alkarrenganako maitasunezko lokarriak sendotzen lagunduz

Beti Pazko-aldiari begira bizi behar dogun Garizuma-aldian, «Emauseko ikasleen» (Lk 24, 13-35) pasarteaz baliatuko gara bere indar gogoragarriak argi egin daigun. Norberaren eta alkarlean bihurtzerako dei zehatzak antzematen saiatuko gara, jasotako sinodo-mezuetan islatutako azpimarra, jardun eta eskaerak kontuan hartuta. Prestaketarako agiriak mundu osoko sinodoaren helburu nagusitzat jotzen dauana hemen, Bizkaian, egia bihurtu gura dogu: "ametsak sorrarazo, iragarpen eta ikuspenak

eragin, itxaropenak lorarazo, konfiantza suspertu, zauriak lotu, hartu-emonak josi, itxaropenezko egunsentia biztu, alkarrengandik ikasi, eta buruak argitu, bihotzak sutu eta eskuak indartu egingo dituan iruditeria positiboa sortu” (Sinodoa prestatzeko agiria, 32. zenb.).

### **«Ikasle bi bidean joiazan»**

Idazki honetan jorratuko dogun ebanjelioko pasartearen hasieran egiaztatu daikegunez, ikasle biak alkarregaz doaz Jerusalemetik Emausera. Hona hemen, sinodo-senaren jatorrizko esanahiaren lehen zantzuak, hain zuzen be, zehatz-mehatz, «bidean alkarregaz joan».

Gizon-emakumeok ibiltariak gara. Bidea, kristauontzat, metafora da, bai geure bizitzarena eta bai geure fedearena be. Abrahamek bizimodu ibilkaria izan eban (Has 12, 4-7) eta Moises basamortu gogorra zeharkatu eban ibilaldi luzean buru izan zan (Dt 1, 31). Jainkoak ez gagozan lekutik deitzen gaitu beti. Ezinbestekoa da geure buruari zein bidetan gabilzan behin eta barrero galdetzea: zorientasun eta salbazinoaren bidetik aurrera egiten dihardugun ala galduta, hara-hona noraezean goazan. Kristauok ez dogu biderik asmatu beharrik. Jesusen atzean jarri eta Beragaz batera aurrera egin gura dogu, bera da-eta bidea, egia eta bizia (Jn 14, 6). Kristok binaka bialtzen gaitu misinora. Izan be, ez argienak, ez sortzaileenak, ez prestatuenak, ez leialenak, ez irekienak be ez dau lorpen handirik jadetsiko.

Eleiza jabetzen da bere erromes-izaeraz –beraz, sinodo-izaeraz- eta horregatik, bere misino-egitekoa gauzatu ahal izateko, nahitaez zaindu behar dau beti batasuna eta ardurakidetasuna eta bateatu guztien partaidetza sustatzeko bide eraginkorrak aurkeztu behar ditu, gizon eta emakume guztien eta bakotxaren karisma eta gaitasunak autortuz. Gainera, gizadiaren zerbitzura bide eginez goaz, munduko beste hainbat kristau sinismenetako eta gainerako erlejinotako pertsonakaz batera bide eginez hain zuzen, Jainkoarenganako benetako fedea, banatzaile ez ezik, anai-arreben arteko bategite eta lankidetzaren eragiteko gauza dala erakusteko gogo biziz.

Bidean, era guztietako zailtasun eta tentazioak agertu daitezke. Horreetako bat, dana dakiela-eta, laguntzarik behar dez dabenen harrokeria da. Tentazino horrek hainbat arrisku antzematea galarazoten deusku. Horretan ez jausteko, bidean goazala entzutea, eta asko entzutea gainera, aukeratzen dogu zentzuz. Akonpainamendua ezinbesteko dodala onartzen dodanean, beste batzuen zaintza be onartzen dot eta neure burua zaintzeak zer esan gura dauan hobeto ulertzen dot. Eta jakina, esker oneko bihotza izanda, hobeto zaindu ahal izango dodaz besteak; holan, naturaltasunez, pozez, alkar zaintzeari ekiten deusagu.

**Bizkaiko Eleizan garaien zantzuak irakurten ikasi gura dogu, alkar zainduz eta gizalegezko gizartearen sorburu eta Jesusen alkarrearen bereizgarri diran alkarrenganako maitasunezko lokarriak sendotzen lagunduz.**

Berbaz ziharduela, «Jesus berera inguratu jaken eta eurekaz joian», Emauseko ikasleakaz. Esaten ebena entzun eta euren nahasketaz eta babesgabetasunaz jabetu zan. "Kontsolatu egin gaitue eta besteak kontsolatzea" dagokigu. Jaunak lagun egiten deusku eta behartasunean bizi diran norbanako eta gizataldeei gertutik lagun egiteko eskatzen. Zaintzeak gure arreta eta hurkotasunaz, eskuzabaltasunez, inguruko behartasunaren deiei erantzutea esan nahi dau. Ezagutu daiguzan eta hurreratu gaitzean eurakaz batera joateko.

### **«Gertatutako guztiez berbetan ziharduen alkarregaz»**

«Gertatutako guztiez berbaz jardutea» beti da kritikoa. Inork ez ditu gertatzen ari danaren giltzarri guztiak; inork ez dau bete-betea ulertzen gure egoeraren edo dalako gertaera baten esanahia. Besteen ikuspuntua ezinbestekoa da edozein gertaera esanguratsuren zentzua bereizteko. Horregaitik, Jainkoaren Berbara zabaltzeaz gainera, hizkuntza desbardinak hitz egin arren, alkar ulertzeari uko egiten ez deutesenen eretxi-sorta aberatsean islatzen dan Espirituaren ahotsari zabalik iraun gura dogu. Aita Semearengan agertzen da, eta Semea Espirituak alkarrean sustatzen dituan karisma eta sentsibilitateetan. Horregaitik, Berbeagaz dogun hartu-emona askotariko berben arteko hartu-emonetan hedatzen eta zehazten da.

Askotan, ibiltarien arteko solasaldiek –Emausen gertatzen dan lez- arrakastak gogoratu eta kutsu alaia izan ordez, etsipena eta tristura islatzen dabe: "Guk uste genduan... baina begira zer gertatzen ari dan". Ohikoa da gure bizitzan zapuzteak bizi izatea, baina gure azterketetan arrangura nabarmentzen danean, diskurtsoa antzu bihurtzen da eta geldiarazo egiten gaitu. Ahuleziaz jantzitako edozein egoera ondo irakurri gura badogu, ez deiegun besteei errua leporatu. Erakundeak txarto egin leikez gauzak, egundoko kontraesanak erakutsi, baina bere ahulezia neure ahuleziaren emaitza be bada.

Norbaitek bere gabeziak azterketaren erdian jarten dituanean, sendaketa iritsi daiteke. Orduan autortzen da bihurtzeko eta zaintza jasoteko beharrezana, sendatzeko gaitasuna dauan norbaitek -eta ez nik neu neure burua- sendatzeko beharrezana. Holan, parkamena ezinbesteko dogula autortzen dogunok, alkarrearen bidez, batez be hainbat kristau eremutan hain gitxi baloratuta dagoan adiskidetzearen sakramentuan, heltzen jakun Jainkoaren grazia sendatzailea ezinbesteko dogula ulertzen dogu.

Apaltasunetik eragindako eliz harremanari ekin aurretik, sinodo-sena garatzean norberak erakutsitako ahuleziak autortu beharra dago. Bateatu gitxi jabetzen da bere ekarpenak misinorako dauan garrantziaz, guztiak dira-eta ezinbesteko. Eleiz aginpidea, batzuetan, txarto ulertu da eta nagusikeria lez erabilten da; klerikalismoa tentazioa da alkarrean, honeen sustapen eta laguntzan, erantzukizunen bat daukienentzat. Ez da gazte eta emakumerik agertzen, edo ez dagoz behar dan lez ordezkatuta, eleiz ardurakidetasunerako organoetan.

Eta, ostera, artzainen aginpide espirituala, behar bezala gauzatzen danean, laguntasun eta biderapen da Eleizaren bizitarako. Zoritxarrez, batzuetan, askotariko ministerio eta erantzukizunak, zerbitzu arduratsu eta adeitsua argitzeko ez ezik, era bateko edo besteko gehiegikeriak -sexualak, psikologikoak, kontzientziakoak- ezkutatzeko erabili izan dira, egundoko mina eraginez jasan dabenengan. Kristok dei egiten deusku gure arreta osoa jarri daigun gehiegikeria horreen biktimengan, dagokigun erantzukizuna onartuz eta errespetu eta enpatia sakonaz entzuten doguzala sentiarazoz.

«Bai zentzunbakoak zariela, bai motelak!». Jesusen aurrean gure "egia" nahiko geunkena bezain polita ez dala autortu ondoren, Jaunak gidatuko gaitu, patxadaz eta maitekero, Berak adierazten duen Egiaren bidetik.

### «Gelditu zaitetz geugaz»

Iluna gainean dabe eta afaltzeko ordua da. Jesusek jarraitzeko keinua egiten dau, baina bidelagunek ez deutse izten: berataz arduratuta, abegia eskaintzen deutse, hau da, aterpea, jatekoa eta atsedena. Beraz, zaindu egin gura dabela adierazoten dabe. Eskaintzak beste nahi bat be islatzen dau: lagunarte atsegin ha luzatu gurako leukiela: "gelditu zaitetz geugaz". Maisuari zuzenduta, otoitiz edo erregu kutsua dauan eskaera da. Euren erara, zera dinoe. "zaindu gaizuz Zeuk zure presentzia!".

Jesus berbiztuak Emauseko afarian parte hartzen dau eta jarduera horrek Eukaristiaren ospakizuna dakargu gogora: «ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta emon eutsen». Otoitzaren eta sakramentu-bizitzaren bidez, Kristok gure beharriaz erantzuten deutse, guri laguntzeko, hazteko eta sendoago izateko behar doguna emoteko gogoz. Adierazo deiogun gure esker ona Jainkoari Eukaristiaren ospakizunean Jaunaren bitartekari diran abadeengaitik. Eskertu daigun, gainera, abade bako Jaunaren Eguneko ospakizunen bidez, Jainkoaren Hitza eta bere bizigaia astero domekako eukaristiarik ospatzen ez dan kristau alkarteetara eroaten daben pertsonen ahalegina.

Ibiltariak bizirik eutsi gura deutse sinodo-alkartasunari. Otoitzean eta eukaristia-espirtueltasunean aurkituko dabe oinarri sendoa, partaidetzarako eskakizun hori tirabira antzu edo misino-egitekorako funtsezko deitik aldentzen gaituen gatazka-iturri bihurtu ez daiten. Harri gainean eraiki gura dogu, baina beti ez da erraza hanean sakontzea lur-eremu gogorra aurkitzeko. Nahiz eta egia eta balioa izan, absolutu bihurtu ezkerro, bidetik atera gaikiezan presinoen (kanpokoak) eta pasinoen (barrukoak) mende jausteko zorian gagoz.

Askotan bizkorregi bardintzen doguz egiaz doguzan ideiak, bikaintasuna bilatzeko saiakerak Kristoren ideia eta bilaketakaz. Hitza arretaz entzun eta sakramentu-bizitza lantzen badogu bakarrik ezagutu ahal izango dogu Ha gero eta gehiago, gero eta sakontasun handiagoz atxikiko gatzakoz Hari, eta Harek gidatuko dau gure adimena eta gure bihotza modelatuko. Horri esker lortuko dogu, hain zuzen be, desleialtasun edo aurreretxiek eragindako gatazka eta urruntze txikiak handitu eta alkarte bizitzan arrakala eta banantze sakon ez bihurtzea.

**Kristauok ez dogu biderik asmatu beharrik. Jesusen atzean jarri eta Beragaz batera aurrera egin gura dogu, bera da-eta bidea, egia eta bizia (Jn 14, 6).**

### «*Begiak zabaldu jakezan*»

Emausekoek, alkarregaz bide eginez, alkarrizketan jardunez, Maisuaren bizilagun izanik, bizi izandako esperientzia Hitzaren argitan barriro irakurten dabe, otoitz egin eta eukaristia ospatzen dabe. Eta ezustekoa gertatzen da: gero Saulogaz gertatuko danez, ikasleei bekarrak jausten jakez eta, bat-batean, bizi izandako guztia ikusmolde barri-barrian agertzen da. Orain argi ikusten dabe Jainkoak egin dauana, eta ezer ez dala euren uste eben lez. Ustez Jesusen “sekulako porrot” zanak ez dau hutsegitetik ezer eta munduarentzako hasiera erabat barri lez agertzen da.

Alkartasunaren aldeko zerbitzua da ministerio ordenatuaren ekarpen garrantzitsuetako bat. Baina erantzukizun horrek, batez be ordenaren sakramentua hartu dabenei dagokienez, euren ikuspuntua sinodo-prozesutik kanpo, hau da, alkar osoaren eretxiari behar beste jaramon egin barik, ezartzeko edozein tentazino saihesteko konpromisoa hartzera bultzatzen ditu. Erabagiak hartu aurretik, bereizketarako prozesuak ziurtatuko dira alde aurretik informazino nahiko emonez eta parte hartzeko ezinbesteko bideak errespetatuz: “Jainkoaren Herria, fedea eraginik, (...) Jainkoaren presentziaren nahiz xedearen egiazko seinaleak zein diren bereizten saiatzen da” (Vatikanoko II. Kontzilioa, Gaudium et Spes, 11. zenb.). San Ziprianok gotzain eta sinodo oinarri hau adierazi eban III. gizaldian: lekuko Eleizan gotzain barik ezer ez dala egiten egia bada, egia da, baita be, ez dala ezer egiten abade eta diakonoen aholku barik, eta herriaren onespen barik.

Ez dago irakasten dauan eta ikasten dauan Eleizaren arteko bereizketa zorrotzik. Danok ikasten dogu eta danok gara gauza garrantzitsuren bat irakasteko gauza, beste inongo bereizketaren aurretik, Jainkoaren Herri bakarreko kide gara-eta. Ministro ordenatuek herriari hitz egin aurretik, entzun egiten dabe; bateatuek, entzuteaz gainera, aholku emoten dabe eta besteek entzun egiten dabez. Hartu-emonaren norabide bikoitz hau egia maitasunez bilatzeko senean gauzatzen da, prozesua Jainkoarengandik datorren grazia lez, Espirituak argituta biziz. Horretarako, ezinbestekoa da inora ez garoezan presak alde batera iztea, hartu-emonen estiloa zaintzea, aurretiko usteekin ez itsutzea, alkar errespetatzeari inoiz uko ez egitea, norbere argumentuak nasaitasunez aurkeztuz eta bereizketaren azken emaitza norbere edo taldearen proposamenakaz, neurri batean edo erabat, bat etorri edo kontra egon daitekela onartuz.

Eleiz alkartasuna lekukoa eta mundu osokoa da. Alkartasun hori apurtu barik aurrera egiten laguntzen deuskunaren bilaketak zerikusi handia dau Jainkoaren borondateagaz. Eleiza beti da erabarritze prozesuan, baina ezinbesteko aldaketak bereizteko eta garatzeko, sentsibilitate eta eretxien aniztasuna kudeatzeko dogun era, Espirituarengan gauzatzen da eta hau beti ez dator bat munduaren espirtuagaz. Gatazka saihestezina

**Ez dago irakasten dauan eta ikasten dauan Eleizaren arteko bereizketa zorrotzik. Danok ikasten dogu eta danok gara gauza garrantzitsuren bat irakasteko gauza, beste inongo bereizketaren aurretik, Jainkoaren Herri bakarreko kide gara-eta.**

dala eta, batzuetan, esate baterako, Frantzisko aita santuak nabarmentzen dauanez, kontraste eta mobimentuaren eragile lez, baliotsua dala autortuta, alkartasunaren bilaketak "gailendu" egin behar dau. Beste era batera esanda, batasunaren –eta ez uniformetasunaren- onura bilatu eta babestu egin behar dogu beti.

### «Jerusalemera bihurtu ziran»

Emauseko ikasleak triste eta lur jota atara ziran Jerusalemetik. Orain, Berbiztuagaz egon ondoren, bidean atzera egin eta euren alkartera itzultzen dira gogoa aldatuta eta bihotza poztuta, Jaunak helarazi deutesen pozez gainezka. Behetik, norberarengandik ekiten jako benetako sinodo-sena garatzeari. 'Ni' dalakoa txikiago egin eta 'gu' komunitarioari lehentasuna emoten jakonean hasten da. Giza historian sekula ez dira hainbesteko indarrez babestu 'ni' horren eskubideak. Inor ez dago eguneroko hamaika mezu eta xehetasunetan pozarren agertzen dan 'ni' dalakoaren ikuspuntu indibidualista -eta askotan izolazionista- horren eraginetik kanpo. Ez da erraza nork bere buruari uko egiteko proposatzea, ebanjelioaren mezuan hain garrantzitsua bada be, ez da-eta erraza hori bizitzea. Gaur, batez be gaur, ezinbestekoa dogu alkarte, ospakizun, zerbitzu, iragarpen bizitzara bihurtzea. Hor, haizearen kontra goaz. Gure lekuko alkarteak sendotu eta Eleizbarrutiko kide sentitu gura dogu, ez amesten dogun Eleizbarrutiko kide, existitzen dan eta federa esnatu gaituan eleizbarrutiko kide baino. Ikasi daigun onartzen, bere ahuleziak onartu eta maitatzen, Kristo, gaur, beti lez, ahulezian ezagutu, bizi eta sentituko dogula ulertuz.

Eleiz erakundea, hasieran hazi erara eratu zana, bi mila urteren buruan sendo itxuratuta dago. Iraganean sortuta, eutsi egiten deutso gizaldiz gizaldi aldaketen presinoari. Ohituraren pisua jakinduria zuhur bihurtzen da, baina baita zailtasun be gaur egun ebanjelioaren pobretasun eta gertutasuna islatzen ez daben era eta moldeak arazteko. Hainbat sektorek Eleizaren izaera hierarkiko eta bertikala azpimarratzen dau: "Baina ebanjelizatzearen subjektua erakunde organiko eta hierarkiko bat baino gehiago da, Jainkoarengana erromes doan herri bat delako batez ere. Hirutasunean errotutako misterio bat da benetan, baina herri erromes eta ebanjelizatzaile batean bere gauzatze historikoa duena, beharrezkoa den edonolako egituratze instituzionalen gainetik dagoelarik" (Frantzisko, Evangelii Gaudium, 111. zenb.).

Frantzisko aita santua aldrebeseko piramideaz baliatzen da eleiz egituraren berezitasuna azaltzeko: irudi horretan, "gailura oinarriaren azpitik dago. Horregaitik, aginpidea dabenak «ministro» deitzen dira: hitzaren jatorrizko esanahiaren arabera, txikienak diralako eta guztien zerbitzura dagozalako" (Berbaldia gotzainen Sinodoaren eraketaren 50. urteurrenean, 2015.eko urriaren 17a).

**Alkartean bizitzea, zerbitzua, liturgia eta iragarpena sinodo-senez bizi eta gauzatu behar doguz Espiritu Santuarengan. Alkar zaintzean eta alkarrenganako arreta sentibera eta jasankorrean adierazotako alkarrenganako maitasunak gidatuko dabez guzti horreek.**

Ez daigun ahaztu Eleiza osoa karismatikoa dana. Espiritu Santuaren doeak era berezian iristen dira alkartera, biziera sagaratuaren bidez eta askotariko doe eta karismak dituan laikotzaren ekarpen kritikoei esker. Bidezkoa da, Eleizan makina bat egitekotan konprometitutako hainbeste emakume aitatzea, eskaintzen daberen bizitasuna, esperientzia aberatsak eta pertsonen zaintzarako aparteko sentsibilitatea nabarmenduz. Esker oneko autortza hau eta bertatik sortzen dan Jainkoaren gorespena sinodo-senaren funtsezko ezaugarri dira.

### **«Biztu da Jauna»**

Emauseko ikasleakaz batera, hartzen eta babesten dituan alkarteak be –Jesusen ama, apostoluak, taldean joiazan emakumeak- jasoten dau Jaunaren Espiritua eta, honegaz batera, Barri Ona hots egiteko misinoa. Bere muina, Kristoren Berbizkudearen iragarpen eta ospakizuna da. Espiritu horrek eraginda, euren gordelekuetatik atara eta pozik hartzen dabe euren gain Barri Ona iragarteko ardura, bakotxak bere egoera eta gaitasunaren arabera.

Alkarregaz bide egitea, alkar zaintzea, Emauseko ikasleek egin eben lez, Eleizaren izatearen osagarri da. Horregaitik da sinodo-seneko. Sinodo-sena, izateko, alkartasuna bizitzeko eta misino-mandatuak garatuz jokatzeko berariazko era da. Alkartean bizitzea, zerbitzua, liturgia eta iragarpena sinodo-senez bizi eta gauzatu behar doguz Espiritu Santuarengan. Alkar zaintzean eta alkarrenganako arreta sentibera eta jasankorrean adierazotako alkarrenganako maitasunak gidatuko dabez guzti horreek.

### **Amaiera**

Maria, gizakudearen misterioaren zaintzaile eta bitartekari handia, abestuz –«Ama maite Maria, egiguzu lagun, zure bitartez Jesus ikusi dagigun!»- erregutzen doguna, lagun dogula, goiargia eta prestasuna eskaten deusaguz Espirituari sinodo-seneko benetako Eleizbarrutia eratu daigun, barruko alkartasuna zaindu eta, aita santuaren bitartez, mundu osoko Eleizagaz batera, partaidetza ardurakidea garatu daian bateatuengan. “Bateatu guztiek ahaleginak egin daiezala beste edozein agenda edo ardurak ez daian misinora zuzendutako eta misinoan oinarritutako begirada ahuldu.” Lagundu eiguzu, Jauna, Andra Mariaren bitartez, ebanjelioaren altxorak aurkitzen, zure lankide izateko gogoa izaten eta zurekin alkarlanean aritzen, Bizkaian gero eta gizon eta emakume gehiagok ezagutu zaiezan “Bide, Egia eta Bizi” lez (Jn 14, 6).

*Hausterre-eguna, 2022.eko martxoaren 2a*